

## **6. KANALAK**

Bezeroekin harremana lortuko dugu gure txip-ak hainbat albitariei salduz eta gero haiek gure produktua haien bezeroei salduko diete. Horrez gain, gure produktua ezagutzera emateko sare-sozialetan, telebistan eta irratan publizitatea egingo dugu saltzen dugun produktuari buruz informazioa eskaintzen. Telebistan eta irratan informazio orokorra emango dugu, baina sare-sozialei dagokionez, link bat utziko dugu gure web orrira zuzenean eramaten zaituena eta han katalogo osoa aurkituko duzu.

Gure negozioak bi kanal mota izango ditu. Alde batetik, kanal zuzena eta bestaldetik, zeharkako kanala.

Kanal zuzenari dagokionez, Internet bidez saltzeko online denda bat edukiko dugu sortutako web orrian.

Bestaldetik, zeharkako kanalarik dagokionez, gure produktua salduko dugu albitari denda bati eta albitariak bere bezeroei eskainiko die gure txip-a. Gure produktuari esker lortutako irabazien parte bat albitariarentzat izango da.